

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA
OGASUN ETA FINANTZA SAILA

3360

145/2025 DEKRETUA, uztailaren 15ekoa, 2025eko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren aurrekontuan kredituak txertatzeari buruzkoa, Euskal Autonomia Erkidegoan lan-harremana duten atzerritarren norberaren edo besteren konturako lanerako hasierako baimenei buruzko Estatuko lan-legeria betearazteko eginkizunak eta zerbitzuak eskualdatzekoa.

Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen Testu Bateginaren 75. artikulua honako hau ezartzen du (testu bategin hori maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuak onartu zuen, zeinaren bidez arautzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatu beharreko aurrekontu-araubidea): Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen edo zerbitzu berriak eskuratzen baditu Estatutik, eskumen-aldaketaren ondorioz sortutako betebeharrak eta likidatuko diren ekonomia-eskubideak betetzeko behar diren kredituak txertatu beharko dira aurrekontu orokorretan. Halaber, Transferentzien Batzorde Mistoaren erabakia Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian azken aldiz argitaratu eta hogeiei egun baliodun igaro baino lehen, Jaurlaritzak eskumen edo zerbitzu berriari dagozkion gastuen eta sarreraren egoera-orria onartuko du eskumenaren edo zerbitzuaren transferentzia gauzatu den ekonomia-ekitaldia amaitu arte gelditzen den aldirako.

2025eko ekainaren 24ko Estatuko Aldizkari Ofizialean ekainaren 17ko 511/2025 Errege Dekretua argitaratu da, Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzekoa Euskal Autonomia Erkidegoan lan-harremana duten atzerritarren norberaren edo besteren konturako lanerako hasierako baimenei buruzko Estatuko lan-legeria betearazteko eginkizunak eta zerbitzuak. Halaber, 2025eko ekainaren 24ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ekainaren 17an 128/2025 Dekretua argitaratu da, Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoaren erabaki bat onartzen duena, lehen aipatutako gaiari buruzkoa.

Horrenbestez, Ogasun eta Finantzetako sailburuak eta Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburuak proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak, 2025eko uztailaren 15eko bilkuran, proposamena eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Kredituak txertatzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2025eko aurrekontuan.

1.– 162.177,34 euroko gastu-egoera onartzen da, Estatuaren lan-arloko legeria betearaztearen alorrean eginkizun edo zerbitzu berriak jasotzearen ondoriozko obligazioei aurre egiteko beharrezko zenbatekoaz osatutakoa, Euskal Autonomia Erkidegoan lan-harremana duten atzerritarren norberaren edo besteren konturako lanerako hasierako baimenei buruzko Estatuko lan-legeria betearazteko.

2.– Jasotako eskumen berriari dagokion sarreraren egoera-orria 162.177,34 eurokoa da.

3.– Aurreko apartatuetan aipatzen diren sarreraren eta gastuen egoera-orriak 2025eko uztailaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra arteko aldiari dagozkio. Honela xehatzen dira:

2025eko uztailaren 31, osteguna

Gastuak:

3112 programa – Lana

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
3112	244.99	162.177,34
	GUZTIRA	162.177,34

Diru-sarrerak:

3112 programa – Lana

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
3112	300.01	110.882,62
	GUZTIRA	110.882,62

9211. programa – Espainiako Sektore Publikoarekiko Finantza Harremanak.

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
9211	430.00	51.294,72
	GUZTIRA	51.294,72

2. artikulua.– Kredituak txertatzearen ondorioak.

1.– Ogasun eta Finantza Sailak aurreko artikuluan aipatu diren gastuen eta sarreraren egoera-orriak integratuko ditu Euskal Autonomia Erkidegoko 2025eko aurrekontuan, dagozkion ondorio juridikoak izan ditzan, eta, bereziki, egoera-orri horien kontabilitatea, exekuzioa eta ondorengo likidazioa egoki gauza daitezzen.

3. artikulua.– Eusko Legebiltzarrari jakinaraztea.

Ogasun eta Finantza Sailak, Eusko Jaurlaritzaren izenean, Eusko Legebiltzarreko Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeari jakinaraziko dio dekretu honetan xedatutakoaren babesean egindako kreditu-kontsignazioa.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA.– Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2025eko uztailaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak, orduan gehituko baitira dekretuan aipatzen diren eginkizun eskualdatuak.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko uztailaren 15ean.

Lehendakaria,
IMANOL PRADALES GIL.

Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburua,
MIGUEL TORRES LORENZO.

Ogasun eta Finantzetako sailburua,
NOËL D'ANJOU OLAIZOLA.